

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



EUSKAL ESPEDIZIO BAT PERUKO ANDEETAN, 1967AN

JUAN MARI FELIU DORD

1967ko apirilean, Peruko Andeetara zihoan euskal espedizio bat itsasontziz abiatu zen Santurtzitik Limako Callao porturaino. 24 egun behar izan zituzten helmugara iristeko. Euskal espedizioaren asmoa Andeetako gailurrik garrantzitsuenetako batzuetara iristea zen. Juan Mari Feliu Iruñeko espediziokide batekin ikurrina zeraman ekipajearekin, Kodak Retinette batekin, gerorako geratu den argazkia atera zuen.

Euskal Herrira itzuli zenean, Juan Mari Feliuk, Espainiako poliziak ikurrina konfiskatu egingo zuela aurreikusita, Baionan zegoen Eusko Jaurlaritzaren egoitzan utzi zuen, eta Manuel Irujok hartu zuen haren ardura. Aste batzuk geroago, Angel Landa espediziokideetako baten eskutik Basaurin ematen ari zen proiektzio batean, akats bat tarteko, Atunrrajuko gailurreko argazki batzuk erakutsi ziren. Bertan ikurrina ikusten zen, eta

publikoak txalo artean hartu zuen euskal ikurraren presentzia. Proiektzioa egin eta egun batzuetara, poliziari egindako txibatazoak espedizioako kide guztiak atxilotzea eragin zuen. Atxilotetak eta miaketak izan ziren eta polizia ikurrinaren eta diapositiben bila ibili zen han eta hemen. Euskal Mendizale Federazioko orduko presidente Pedro Otegik ere komisariatik pasatu behar izan zuen.

Argazkien egile eta ikurrinaren eramaile Juan Mari Feliu atxilotu egin zuen Guardia Zibilak, eta bere etxea miaztean, espedizioako beste kideei bezala, Andeetan ateratako irudi asko konfiskatu zituzten, besteak beste, Atunrrajuko gailurreko ikurrinarenak. Feliuk bi hilabete eman zituen Iruñeko espetxean. Goian ageri den argazkian Andeetako euskal espedizioako kideak ageri dira: Angel Landa, Paco Lusarreta, Angel Rosen, Juan Ignacio Lorente eta Juan Mari Feliu (zutik) eta Rodolfo Kirch eta Luis Mari Saez Olazagoitia (makurtuta).